



**EBAZPENA, 2018KO EKAINAREN 1EKOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ERTZAINZAREN LEHENENGO ETA BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNERAKO HIZKUNTZA GAITASUN IKASTARO TRINKOEN 2018KO DEIALDIA EGITEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DE 1 DE JUNIO DE 2018, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS POR LA QUE SE CONVOCAN CURSOS INTENSIVOS DE CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA EN EL PRIMER Y SEGUNDO PERFIL LINGÜÍSTICO DE LA ERTZAINZTA PARA EL AÑO 2018.**

Urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuak, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioa onartzen duenak, 67. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baita Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izena duen P02230-4.0 prozedurarekin bat etorriz ere, eta apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera niri dagozkidan eskumenak gauzatuz, honako hau

De conformidad con las previsiones del artículo 67 del Decreto 4/2012, de 17 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza y el procedimiento P02230-4.0, sobre acceso a formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera, en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 12 del Decreto 83/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad,

### EBAZTEN DUT

### RESUELVO

**LEHENENGOA.-** 2018ko hizkuntza gaitasun ikastaro trinkoen deialdia egitea Ertzaintzaren karrerako funtzionarioentzat, jarduneko zerbitzu egoeran edo bigarren jarduera egoeran daudenean.

**PRIMERO.-** Convocar cursos intensivos de capacitación lingüística para el año 2018 dirigidos a personal funcionario de carrera de la Ertzaintza, en las situaciones administrativas de servicio activo y segunda actividad.

**BIGARRENA.-** Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izeneko P02230-4.0 prozeduraren bitartez arautzen diren hurrengo ikastaro hauek antolatuko dira:

**SEGUNDO.-** Los cursos objeto de la presente convocatoria, que se rigen por el procedimiento P02230-4.0, sobre acceso a formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera, son los siguientes:





1.- Ertzaintzaren lehenengo hizkuntza eskakizunerako hizkuntza gaitasun ikastaro trinkoaren 2018ko bigarren edizioa, **1. eranskinean** ageri diren ezaugarriek jarraiki.

2.- Ertzaintzaren bigarren hizkuntza eskakizunerako 2018ko hizkuntza gaitasun ikastaro trinkoa, **2. eranskinean** ageri diren ezaugarriek jarraiki.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau eman den datararte egindako eskariak aintzat hartuko dira. Hala ere, ertzainek beti izango dute ezarritako epe berri honetan aurkeztutako eskariari uko egiteko aukera.

**LAUGARRENA.-** 1.- Giza Baliabideen zuzendariak eskabideei buruzko ebazpena emango du eta, onespena ematekotan, beharrezko baimenak ere emango ditu.

2.- Ikastaroetan parte hartzeari buruzko araubidea Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioaren 49. artikuluan ezarritakoa da.

3.- Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak direla eta, urtarrilaren 17ko 5/2012 Dekretuaren 20.1.c) eta 4. artikulua aplikatuko dira, Ertzaintzaren erakunde sindikalak diren ErNEk eta ELAk 1999ko martxoaren 9an Herrizaingo Sailarekin sinatu zuten Akordioarekin lotuta. Akordio hori, hain zuzen ere, otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren VI. kapituluak aipatzen dituen hizkuntza gaitasunerako ikastaroen gainekoa da.

Bizilekuaren eta ikastaroa ematen den tokiaren arteko distantzia haren eta zerbitzua

1.- Segunda edición de 2018 del curso intensivo de capacitación lingüística en el primer perfil lingüístico de la Ertzaintza, con arreglo a las especificaciones que constan en el **anexo 1**.

2.- Curso intensivo de capacitación lingüística en el segundo perfil lingüístico de la Ertzaintza de 2018, con arreglo a las especificaciones que constan en el **anexo 2**.

**TERCERO.-** Se tomarán en consideración las solicitudes de participación al curso presentadas hasta la fecha, sin perjuicio de su derecho a desistir del mismo dentro del plazo establecido al efecto.

**CUARTO.-** 1.- La Directora de Recursos Humanos resolverá sobre las solicitudes y en caso de ser estimatorias autorizará los permisos correspondientes.

2.- El régimen de participación en los cursos será el establecido en el artículo 49 del Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza.

3.- En cuanto a las indemnizaciones por razón de servicio, se aplicará el artículo 20.1.c) y 4 del Decreto 5/2012, de 17 de enero, en su relación con el Acuerdo suscrito el 09 de marzo de 1999 entre la organizaciones sindicales de la Ertzaintza, ErNE y ELA con el Departamento de Interior en relación con los cursos de capacitación lingüística previstos en el Capítulo VI del Decreto 30/1998 de 24 de febrero.

En aquellos supuestos en que la distancia entre el domicilio y el centro de impartición





ematen den lantokiaren artean dagoena baino handiagoa bada, kilometro-gastua bi distantzien arteko aldeetatik konpentsatu ahalko zaie ertzainei benetan ikastarora joandako egunetan.

del curso fuera superior a la distancia entre aquél y el centro de trabajo en que se viniera prestando servicio, el/la ertzaina tendrá derecho a la compensación del gasto de kilometraje por la diferencia todas las jornadas en que se produzca la asistencia efectiva al curso.

4.- Ertzaintzako funtzionarioak jatorri-unitateen esanetara geratuko dira, dagokion plangintzaren arabera, edozein arrazoi dela-eta lau egun edo gehiago jarraian eskolarik ez dagoen edo etenaldia egiten den egunetan. Ikastaroko bi asteren artean dauden asteburuetan ez da zerbitzurik eman beharrik izango.

4.- Cuando coincidieran cuatro o más días consecutivos en que no hubiera clase, el personal se reincorporará a la planificación de su grupo de trabajo desde el primero de ellos hasta la víspera al reinicio del curso, ambos incluidos. No tienen esta consideración los fines de semana que se encuentren entre dos semanas del curso.

**BOSGARRENA.-** Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta interesdunek haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar diezaioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena argitaratzen denetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Esandakoa jakitera ematen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikulua betez.

**QUINTO.-** Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrán los/as interesados/as interponer conforme a lo previsto en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes a partir de la publicación de la presente resolución, lo que se comunica en cumplimiento de lo establecido en el art. 40 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Erandio, 2018ko ekainaren 1a.



Izpta.: MIREN KARMELE ARIAS MARTÍNEZ  
GIZA BALLABIDEEN ZUZENDARIA





## 1. Eranskina

Ertzaintzaren lehen hizkuntza eskakizunerako  
hizkuntza gaitasun ikastaroaren 2018ko 2. edizioaren  
deialdia.

Egunero 6 orduko ikastaro trinkoa.

Convocatoria de la segunda edición de 2018 del curso de  
capacitación lingüística en el primer perfil lingüístico de  
la Ertzaintza.

Curso intensivo de 6 horas diarias.

### 1. Ikastaroaren ezaugarriak.

- Tokia: Arkauti-Erandio-Oiartzun-lurreta, antolatu ahal diren taldeen arabera.
- Iraupena: Lau hilabetekoa (gehienez 560 ikastordu). 2018ko azaroaren 28tik 2019ko maiatzaren 3ra (biak barne).
- Eskolarik gabe: 2018ko abenduaren 6a, 2018ko abenduaren 24tik 2019ko urtarrilaren 1era (biak barne), 2019ko martxoaren 18a eta 19a, 2019ko apirilaren 18tik 26ra eta 2019ko maiatzaren 1a.
- Ordutegia: 08:00etatik 14:30era. (egunero sei orduko ikastaro trinkoa).
- Ikastaroa ematea: PLEA.
- Ikasleen kopurua: 60 ikasle.
- Ikastaroa eskatzea: P02230-4.0 prozedura jarraituz S140-5 eskaera bete eta igorri.
- Eskaera aurkezteko azken eguna: 2018ko ekainaren 29a.

### 2. Sarrera baldintzak.

#### a. Ezinbesteko baldintzak:

- Jarduneko zerbitzu edo bigarren jarduerako egoera administratiboan egon eta Ertzaintzan benetako zerbitzuan dagoen langilea izatea.
- Gutxienez B1 maila egiaztatuta izatea eta eskaera aurkeztu aurreko azken hiru urteetan, lanorduz kanpo eta euskaltegi homologatuetan urrats bat gainditzea bederen.
- Ordu kreditua izatea.

#### b. Lehentasunaren araberako hautaketa irizpideak:

- Lehentasun handiagoa duen unitatean lan egitea,

### 1. Características de curso.

- Lugar: Arkaute-Erandio-Oiartzun-lurreta, en función de los grupos que se puedan organizar.
- Duración: cuatro meses (máximo de 560 horas lectivas). De 28 de noviembre de 2018 a 3 de mayo de 2019 (ambos incluidos).
- Período no lectivo: el 6 de diciembre de 2018, del 24 de diciembre del 2018 al 1 de enero de 2019 (ambos incluidos), el 18 y el 19 de marzo de 2019 y del 18 al 26 de abril de 2019 (ambos incluidos), y el 1 de mayo de 2019.
- Horario: de 08:00 a 14:30. (intensivo de seis horas al día)
- Impartición: AVPE.
- Número de plazas: 60 alumnos.
- Solicitud del curso: Siguiendo el procedimiento P02230-4.0, rellenar y entregar la solicitud S140-5.
- Plazo de solicitud: Finaliza el 29 de junio de 2018.

### 2. Condiciones de acceso.

#### a. Requisitos imprescindibles:

- Ser personal en la situación administrativa de servicio activo o segunda actividad y que esté en servicio efectivo en la Ertzaintza.
- Acreditar un nivel mínimo B1 y haber superado, al menos, un subnivel de euskera en centros homologados fuera del horario laboral en los últimos tres años anteriores a la solicitud.
- Contar con crédito horario suficiente.

#### b. Criterios de selección por orden de preferencia:

- Tener por destino en una unidad de mayor prioridad en base a lo dispuesto el Plan de Uso





Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak ezartzen dituenaren arabera. [Ertzaintzaren Euskara Erabilera Plana](#).

- Gazteagoa izatea. (30/98 Dekretuak, Ertzaintzan euskararen normalizazioa prozesua arautzen duenak, 8. artikuluan, derrigortasun datak jartzeko irizpideen artean titularraren gaztetasuna eta lanpostuan denbora gutxiago eramatea kontuan hartzen ditu)

### 3. Konpromisoa.

- Ikastaroa bukatu ondoren Ertzaintzaren 1. hizkuntza eskakizunaren edota horren baliokidetzatza duten azterketetara aurkeztea.

### 4. Lan premiak.

- Liberazioak polizia unitateek une oro dituzten lan premien arabera emango dira.

del Euskera en la Ertzaintza. [Ertzaintzaren Euskara Erabilera Plana](#).

- Tener menor edad. (El artículo 8 del Decreto 30/1998, por el que se regula el proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza establece como criterios para atribuir la fecha de preceptividad la menor edad del titular de la dotación y la menor antigüedad)

### 3. Compromiso.

- Una vez finalizado el curso, presentarse a las pruebas oficiales de acreditación del 1º perfil lingüístico de la Ertzaintza o equivalente.

### 4. Necesidades de servicio.

- Las liberaciones estarán supeditadas a las necesidades de servicio que en cada momento requieran las unidades policiales.



## 2. Eranskina

Ertzaintzaren bigarren hizkuntza eskakizunerako  
2018ko hizkuntza gaitasun ikastaroaren deialdia.  
Egunero 6 orduko trinkoa.

Convocatoria del 2018 al curso de capacitación lingüística  
en el segundo perfil lingüístico de la Ertzaintza.  
Curso intensivo de 6 horas.

### 1. Ikastaroaren ezaugarriak.

- Tokia: Arkauti-Erandio–Oiartzun-lurreta, antolatu ahal diren taldeen arabera.
- Iraupena: Bost hilabetekoa (gehienez 700 ikastordu). 2018ko urriaren 24tik 2019ko maiatzaren 3ra (biak barne).
- Eskolarik gabe: 2018ko azaroaren 1a, 2018ko abenduaren 6a, 2018ko abenduaren 24tik 2019ko urtarrilaren 1era (biak barne), 2019ko martxoaren 18a eta 19a, 2019ko apirilaren 18tik 26ra eta 2019ko maiatzaren 1a.
- Orduetgia: 08:00etatik 14:30era. (egunero sei orduko ikastaro trinkoa).
- Ikastaroa ematea: PLEA.
- Ikasleen kopurua: 70 ikasle.
- Ikastaroa eskatzea: Jabedun lanpostuan ala betetzen duten lanpostuan 2. HE esleituta duten ertzainek S140-5 eskaera bete eta igorri beharko dute. Beste guztiek P02230-4.0 prozedura jarraituz S140-5 eskaera bete eta igorri.
- Eskaera aurkezteko azken eguna: 2018ko ekainaren 29a.

### 2. Sarrera baldintzak.

#### a. Ezinbesteko baldintzak:

- Jarduneko zerbitzu edo bigarren jarduerako egoera administratiboan egon eta Ertzaintzan benetako zerbitzuan dagoen langilea izatea.
- Ertzaintzaren 1.HE edo baliokidea izatea eta Ertzaintzaren 2.HE edo baliokidea ez izatea.
- Lanpostuak 2.HE ez duenean, azken bi urteetan eta lanorduz kanpo urrats bat gainditzea (gutxienez HABEren B2.2 azpimaila).
- Ordu kreditua izatea.

### 1. Características de curso.

- Lugar: Arkaute-Erandio-Oiartzun-lurreta, en función de los grupos que se puedan organizar.
- Duración: cinco meses (máximo de 700 horas lectivas). De 24 de octubre de 2018 a 3 de mayo de 2019 (ambos incluidos).
- Período no lectivo: el 1 de noviembre de 2018, el 6 de diciembre de 2018, del 24 de diciembre del 2018 al 1 de enero de 2019 (ambos incluidos), el 18 y 19 de marzo de 2019, del 18 al 26 de abril de 2019 y el 1 de mayo de 2019.
- Horario: de 08:00 a 14:30. (intensivo de seis horas al día)
- Impartición: AVPE.
- Número de plazas: 70 alumnos.
- Solicitud del curso: Los/as ertzainas que cuenten con PL2 en su plaza en propiedad o en el puesto que ocupan deberán rellenar y entregar la solicitud S140-5. Y el resto, siguiendo el procedimiento P02230-4.0 rellenar y entregar la solicitud S140-5.
- Plazo de solicitud: Finaliza el 29 de junio de 2018.

### 2. Condiciones de acceso.

#### a. Requisitos imprescindibles:

- Ser personal en la situación administrativa de servicio activo o segunda actividad y que esté en servicio efectivo en la Ertzaintza.
- Contar con el PL1 de la Ertzaintza o equivalente y no haber acreditado el PL2 de la Ertzaintza o equivalente.
- Cuando el puesto de trabajo no tenga el PL2, realizar un nivel de euskera (mínimo el subnivel B2.2 de HABE) en los últimos dos años y fuera del horario laboral.
- Contar con crédito horario suficiente.







b. Lehentasunaren arabera hautaketa irizpideak:

- Lanpostuak 2.HE derrigortasun dataarekin izatea.
- Jarduneko lanpostuak derrigortasun datarik gabeko 2.HE izatea.
- Jabedun lanpostuak derrigortasun datarik gabeko 2.HE izatea.
- Lehentasun handiagoa duen unitatean lan egitea, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak ezartzen dituenaren arabera. [Ertzaintzaren Euskara Erabilera Plana](#).
- Gazteagoa izatea. (30/98 Dekretuak, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duenak, 8. artikuluan, derrigortasun datak jartzeko irizpideen artean titularraren gaztetasuna eta lanpostuan denbora gutxiago eramatea kontuan hartzen ditu)

3. **Konpromisoa.**

- Ikastaroa bukatu ondoren Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizunaren edota horren baliokidetzat duten azterketetara aurkeztea.

4. **Lan premiak.**

- Liberazioak polizia unitateek une oro dituzten lan premien arabera emango dira.

b. Criterios de selección por orden de preferencia:

- Contar en el puesto con PL2 con fecha de preceptividad.
- Que el puesto que ocupa tenga PL2 sin fecha de preceptividad.
- Que el puesto en propiedad tenga PL2 sin fecha de preceptividad.
- Tener por destino en una unidad de mayor prioridad en base a lo dispuesto el Plan de Uso del Euskera en la Ertzaintza. [Ertzaintzaren Euskara Erabilera Plana](#).
- Tener menor edad. (El artículo 8 del Decreto 30/1998, por el que se regula el proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza establece como criterios para atribuir la fecha de preceptividad la menor edad del titular de la dotación y la menor antigüedad)

3. **Compromiso.**

- Una vez finalizado el curso, presentarse a las pruebas oficiales de acreditación del 2º perfil lingüístico de la Ertzaintza o equivalente.

4. **Necesidades de servicio.**

- Las liberaciones estarán supeditadas a las necesidades de servicio que en cada momento requieran las unidades policiales.